

MONT BLANC
DU TACUL (4.248 m.)

CARA ESTE DEL MONT BLANC DU TACUL

LE SUPER COULOIR

D.A.

La Cara Este del Mont Blanc de Tacul es un pequeño regalo, una mezcla de alta montaña y de escuela de escalada. El teleférico de la Aiguille es vital en esta vertiente, llena de goulottes de todas las dificultades. La proximidad de la Cabaña Simond, en invierno, y del refugio de Los Cósmicos, de marzo en adelante, dan la oportunidad de escalar varias rutas en altura. Claro está, siempre que la meteo se enrolle un poco.

Las raquetas son de gran ayuda en las aproximaciones. Muchas vías son rapelables y, si no, se sube a la cima y se desciende por la vía normal (cuidado con las placas de viento, que abundan en esta ruta). No es el Pirineo, pero tampoco son las grandes caras norte de los Alpes. mucho más comprometidas en invierno y, sobre todo, más solitarias.

Animo. Se dice que esta primavera será perfecta ahora que abunda la nieve...

Eguzkia ekialdetik aterako ez balitz...

Antzeman denez, udazkenak laguntza bat bota dio aurtengo 1993ko negu honi. Hezetasuna, elurra, alde batetik, hotz lehorra bestetik: zer hobe?...

Donostiatik hots egiten diot lves lagun frantsesari. Goibel samar dago, bere lagun bat, mendiko gida ere, Aiguille Vert-en hil egin zaio, buruz behera grieta batean erorita. Hurrengo astean Gavarnie-tik deitzen diot; erdi menderatuta dauka gertatutako ezbeharra. Bakoitzak dauka bere formulatxoak sentitzen duzun pertsonaren falta gainditzeko.

"Mont Blanc du Tacul-en den dena kondizio onetan dago", dio. Kliente bat dauka Super Couloir egiteko asmoz eta beraiekin joateko aukera eskeintzen dit. Ordu erdi batez, nire burua nahastua daukat, baina, azkenean, joatea erabakitzen dut.

Tacul-eko ekialdeko aurpegiak eskala bat suposatzen du niretzat.

Lehenengo ikasgaia joan den urtean jaso genuen, ez genuen sinisten Meteo-k asma-

Fotos: Y. Astier / D.A.



Eguzkia "Dent du Geant" eta "Garossen"

- 6 TD 9800 m.). 55°, 65°. Salida derecha / 70°, 80°. Salida Izquierda.
7 Couloir Gervasutti. (650 m.). D inf.
8 D inf. (600 m.). 55°.
9 Couloir Dérobé. Inicio 79° mixto, hielo 80°, continúa 60°. T D inf. (550 m.).
10 Albinoni-Gabarrou. T D inf. (550 m.). (200 m.) 55° nieve, 70°, 80° hielo.
11 Modica-Noury. (550 m.). TD+. 75°, 85°, (20 m.) 90°.

tu egiten zuenik eta zigor latza jasan genuen, Valle Blanche-ko glaziarra ez bait da oso toki egokia bisut-sa artean galduta ibiltzeko. Orduan autodidaktak ginen. Aurtengoan, berriz, lves-engandik ahalik eta gehiena ikasteko asmotan noa.

Hala ere, aurtengo ikasgaia ez zen Tacul-en gertatu, Couloir du Plan-eko hurbilketa bidean baizik: haize plaka bat moztu genuenean alde batetik, eta grieta baten grabedade iluna ikusi ondoren bestetik. Eskerrak bietan lotuta gindoazela.

Baina ikasgai nagusia Otsailaren 2an hasiko zen. Aiguille-rako teleferikoa hartu genuen hirurok goizeko 10etan lasaitasun osoz.

Hiru egunetarako motxilarekin abiatu ginen, Aiguille-ko teleferiko geltokitik ordu t'erdia dagoen Simond aterpe zaharrerantz.

Bertan, eskoziar talde bat dago, bi matxaka frantsez ere. "Moska" gaude Pilar Gervasuttiren lehenengo hiru largoak nola egongo diren jakin nahiean. Badaezpada, friend sorte ederra igo dugu. Arroka niri tokatuko zait, jela, berriz, lves-i.

Largoka joateko ziria sartzen diot lagunari, baina abiadura dela eta, horrela utziko dugu. Arroka hiru largoak ez dira zailak, V⁺ gehiena, baina goizeko 7etan, goian hotza egingo duenez...

Goizaldean

Otsailaren 3an goizeko 4etan gozaltzen gaude. Besperatik elurra urtuta genuen, termoak (oso inportanteak neguko mugidetan) jarri eta bagoaz ekialderantz. Glaziar honek neguan ez du grieta arazo askorik, baina badaezpada, lotuta goaz.

Goizeko 7etan prest gaude Pilar Gervasuttiren azpikaldean. Poltsikoak gozokiz beteta. Motxila bakarra igoko dugu, gero rapelatu egin beharko dugulako.

Honetan irratia da nagusi-badakizue?-. Trastetxo honek lasaitasun pixka bat ematen du, batez ere, gus-tokoa duzun amarekin hitz egiteko aukera bait duzu.



Largo gogorraren azpiko erreuniora heltzen



Korredorearen largo gogorrarena eta zailtasunezko azkena

Albeoliteko katuez eskalatzen dugu, eskularruak tarteka kentzerik badago ere eguzkiari ezker.

Arroka gaindituta dago, korredorean sartzeko elurrezko diagonal batetik joan behar da. Zati honen bukarean vivac egiteko toki apropos bat dago. Baita ere beste aukera bat da arratsaldean lasai arroka gainditu eta hurrengo goizean jelari ekin.

Dena dela, badira planteamendu erosoagoak ere, ikusi bestela atzetik zetozen hiru frantsesena.

Bere etxean gozaldur, teleferikoa hartu eta badoaz (gu Aralar-era goazen bezala) Super-Couloir egitera.

Telefonoz balarako edozein lagunari hots egin, galdetu kondizioetaz, azken honek bidea igandean egin bait zuen. Bide batez, iltze berriak non dauden ere esango zien; gero Meteo-ko lagunari afaltzera gonbidatu eta eguraldiaz galdetu.


Botak jartzen ari naizela pasa egin naute, eskiko botak jarrita, arroka guztia "kurrutu" dute. Hori bai nibela.

Bidea korrika egiten dute, tontorra egin eta Simond aterpean lo egin dute vivac fundetan sartuta.

Hurrengo egunean eskiak erreuperatu, motxilan jarri eta Lafaille korredorea (MD+) egingo dute. Gero, tontorretik Valle Blanche-ra eta handik Bañera-ra.



Fotos: Y. Astier / D.A.



"Aiguille du Midin" Valle Blanceko atean

Gora goaz

Beno, gu jelan sartzera goaz, lves doa aurretik. Hori soltura berea!. Behin eta berriz klientea animatuz eta luze batean sartzeko gogorazten dio. Horrelako maldetan, 70°-75°koak, ahalik eta kolpe gutxien eman behar dira, trakzio batez ankak asko igo eta pioletak urrutira jauziz.

Nahiz eta erreunioak arrokan egun (jaisteko erabiliko ditugunak), jela lodian dauden tokietatik goaz eta erreunio asko torniloz egiten dugu.

Jelan 400 m. dira. Erresistentziako jela da, goiko largo pare bat izan ezik, 70°-75°rainokoa bait da, eta azkeneko bietan 85° eta 90°.

Beno, igo dugu. Tontorraz gogorazten naiz, baina KK, rapelatzeke planteamenduaz igo gara eta denbora arin doa.

Erreunioak bi edo hiru iltzez osatuak daude, batzuk oso onak, beste batzuk berriz, oso txarrak. Erne ba rapelatzean.

Labana eskuan eta zenbait kordino aldatzen dugu. Hirurogeitabost metrotako sokaz lau rapel aurretzen ditugu, agian merezi du. Zeuek ikusi.

Ez genekien zihurtasunez zuzeneko sarreran rapelak montatuak izango zirenentz, beraz, diagonala destrepatu genuen. Gero, granitozko hiru largoak rapelatu, motxilak errekupeatu eta Simond aterpera itultzen gara.

Kosta egin zitzaigun lepoa hartzea, gaua izarrez gainezka zegoen. Nekaturik baina pozik gindoazen. Anima zaitzte!! □